

“SAGASTIAK LORETAN” ARGAZKI LEHIAKETA

Sagastiek eskaintzen diguten paisaia zoragarriez gozatzeko unea da. Sagardoaren Lurraldean eta Sagardoetxea Euskal Sagardoaren Museotik “Sagastiak loretan” facebook-eko argazki lehiaketan parte-hartzea proposatzen dizugu (www.facebook.com/sagardoetxea). Lau lagunentzako Sagardoetxeako bisitaldia eta Saizar sagardotegiko bazkaria irabazteko aukera izango duzu!

1.- Sagardoetxearen Facebook-eko orrialdeko “jarraitzaile” guztiek parte hartu ahal izango dute. Oraindik gure jarraitzailea ez bazara, www.facebook.com/sagardoetxea orrialdean “Atsegin dut” botoian klik egin behar duzu. Eraberean, gure orrialdeko jarraitzaileek soilik bozkatu ahal izango dituzte argazkiak.

2.- 18 urtetik gorako, edozein nazionalitateko eta herrialde guztietako pertsonak parte-hartu ahal izango dute.

3.- Lehiaketan parte-hartzeko, aplikazioan sartu, datuak bete eta argazkia igo.

4.- Argazkiek gutxienez 850 pxeletako erresoluzioa izan behar dute alderik handienera eta argitaratu gabekoak, jatorrizkoak eta lehiaketarik irabazi gabekoak izan behar dute.

5.- Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarrarekin parte-hartzeko aukera izango du, baldintza bakarrarekin: gaitzat loretan dauden sagarrondoak dituen argazkiak soilik onartuko dira. Gaiarekin bat ez datozela ikusten diren argazkiak, ezabatu egingo ditugu eta manipulatuak eta jatorrizkoak ez diren argazkiak lehiaketatik



Maiatzaren 25ean amaituko da lehiaketan parte hartzeko epea.

kanporatuko ditugu.

6.- Argazkiak igotzeko epea maiatzaren 25ean amaituko da 24:00etan. Epea amaituta, gutxienez 50 boto lortzen dituzten 5 lehiakideren artean epaimahaiak irabazlea hautatuko du.

7.- Epaimahaia argazkilari profesional batek, Sagardoetxea Museoko gerenteak eta Saizar sagardotegiko gerenteak osatuko dute.

8.- Gutxienez 50 boto lortzen dituzten 5 lehiakideren argazkiak EITBko “Eguraldia” saiora bidaliko dira.

9.- Lehiaketan parte-hartzen duten argazkiak Sagardoetxea Museoan eta Saizar sagardotegian ikusgai jarriko dira.

10.- Saria lau lagunentzako Sagardoetxeako bisitaldia eta Saizar sagardotegiko bazkaria da. Saria uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean trukatu beharko da.

11.- Lehiaketaren irabazlea gure Facebook-eko orrialdean emango da ezagutara.

12.- Lehiaketan parte-hartzen duten argazki guztiek, eskubideak Sagardoaren Lurraldeari emango dizkiote eta bere orrialde, sare sozial eta blog-ean erabili ahal izango ditu argazkiaren autorea aipatzeko konpromezua hartuz.

13.- Lehiaketa honetan parte-hartzeak oinarriak onartzen direla esan nahi du.